

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila	Laburpena	
Obrak	Ubitxa 17 zenbakiko bizilagun batek kexa azaldu du espaloia zabaltzeko egiten ari diren lanak direla-eta. Dioenez, errepidea estutzea eragin du eta aparkaleku pila bat kendu dira.	Inguru horretako urbanizazioarekin, 2 edo 3 aparkaleku galdu dira zebra-bidea egiteko. Ordenamenduaren barruan ez zegoen aparkalekuaren gunea pintatu da.
Zerbitzuak	Salatu du Ubitxako parkearen egoera.	Aurten haur-parkearen ordez gimnasia-parke bat jarriko da.
Udaltzaingoa	Ohartarazi du inguruko auzokide batek jaten ematen diela katuei Ubitxa 6 zenbakiaren parean dagoen garajearen sarreran.	Garbitasun Publikoaren Ordenantza Arautzailean jasotako arau-haustea eginez gero, salaketa jartzen da.
Zerbitzuak / Obrak	Polonia Etxeberriako 21 zenbakiko garajeetako baten jabeak salatu du ura sartzeko delatazio-junturatik. Dioenez, eskailera mekanikoetan egiten ari diren obrek —hormaren kontrara daudenak eta goialdean dagoen terrazak— eragin ditzakete ur-filtrazio horiek.	Zerbitzu Sailean ez dago jasota inguru horretan hezetasunagatik erreklamaziorik jarri denik; eskertuko genuke erreklamazioa egin duena Udaletik pasatzea bisita egin ahal izateko.
Obrak	Proposatzen du zebra-bide bat eraikitzea Polonia Etxeberria 24 zenbakiaren parean, zaborra bota ahal izateko bestaldean dauden edukiontziei.	Trafiko gutxiko toki bat da eta zebra-bide bat sortzeak bateriako 6 aparkaleku kentzea ekarriko luke.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du Urki 6 zenbakian dauden etxabeetako gazteen lokalak eragiten duen zarata.	Eragozpenak sortzen direnean Udaltzaingora dei dezakete arazoa egiaztatzeko eta konpontzeko, eta, beharrezkoa bada, dagokion akta edo txostena egiteko zehapen-espeditentea irekitze aldera.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Errekatxuko bizilagun batek eskatu du eskolen azpian dagoen horma berriz ere garbitzeko. Dioenez, sasi asko daude eta hormak hezetasun handia du.	Hormaren garbiketa kontratatu da, eta 2020ean zehar egingo da.
Zerbitzuak	Salatu du Bolingoarako igoera oso egoera txarrean dagoela.	Tokia ikuskatu ondoren, erabaki da hainbat esku-hartze egitea ingurua txukuntzeko.
Zerbitzuak	Salatu du ez direla zaintzen Errekatxu inguruan dauden jardinerak.	Lorategiak aparkatzeko disuasio-elementu gisa erabiltzen dira, eta ez dekorazio-elementu gisa.
Zerbitzuak	Auzokide batek Errekatxu inguruko garbitasun falta salatu du.	Toki horretan astean 6 egunetan garbitzen da, eta desugertzeko makina urtean 2 aldiz pasatzen; baina abisua pasatu da garbiketa hobeto egin dezaten. Konpondu da gabezia.
Zerbitzuak	Eskatu du plataforma bat sortzea Errekatxu 9 eta Txomoren arteko bihurgunean, edukiontziak jartzeko han.	Mankomunitateak edukiontzien egoeraren txosten bat egin du, aztertzeko zain dagoena. Azterketa horren emaitzak dioena egingo da.
Zerbitzuak	Armagin kaleko 2 zenbakiko bizilagun batek dio Urkiko eskailera mekanikoak ez direla 23:00 geratzen.	Arazoak egon ziren erlojuekin, baina aldatu egin ziren arazoa konpontzeko.
Udaltzaingoa	Salatu du bizikletak garbitzeko jarri zen iturria ez dela behar bezala erabiltzen.	Halako zerbitzuak jartzen dira modu egokian erabili ahal izateko, nahiz eta beti egon pertsona arduragabeak. Era horretako jokaera bat antzematen denean, Udaltzaingoiari esan ahal zaio.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila	Laburpena	
Obrak	Eskatu du Ubitxako espaloia estutzea eta bateriako aparkalekuak egitea.	Ez da komenigarritzat jotzen espaloia estutzea.
Obrak	Galdetu du ea zergatik egin den zebra-bide bat Elortza farmaziaren parean.	Epaitegirako eta Txaltxazelaiko parkerako igarobidea errazteko egin da.
Obrak	Informazioa eskatu du Ubitxa eta San Kristobal arteko igogailuaren proiektuari buruz.	Lehenengo igogailuaren obrak datorren urterako daude aurreikusita.
HIRIGINTZA	Ubitxa 8 zenbakiko auzokide batek galdetu du noiz egin behar den Potosiorenean aurreikusita dagoen proiektua.	Aurreikusitako promozioa ekimen pribatukoa da eta gestionatzen hasi arren (Xehetasun Azterketa bat izapidetuz), sustatzaileek ez dute eragiketarekin jarraitu; geldituta dago. Plan Nagusiaren berrikusketan, aztertu egin beharko da gaia eta soluzioak bilatu inguru horretako berroneratzea ahalbidetzeko.
Udaltzaingoa	Polonia Etxeberria 13 zenbakiko auzokide batek salatu du Urkin ezinezkoa dela aparkatzea. Proposatu du baimendu dadila espaloiarenean gainean aparkatzea ordutegi batetik aurrera. Soluzio bat eskatzen du.	Espaloiak oinezkoentzat dira eta ezin da ibilgailuak bertan aparkatzen utzi.
Zerbitzuak	Ubitxako 23 zenbakiko bizilagun batek kexa azaldu du erreka ertzetan dagoen zikinkeriatik.	Kexak errekarra jausitako arbolak aipatzen ditu eta ez zikinkeria. Ur Agentziara bidali da jausitako arbolak erretiratzeko.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila	Laburpena	
Obrak	Eskatu du pibote bat jartzea kioskoaren igogailuaren irteeran, espazioa errespetatu eta gurgildun aulkiak eta umeenak pasatu ahal izateko. Gainera, eskatu du espaloia beheratzea irisgarritasuna errazteko.	Ezin da espaloia beheratu.
Obrak	Kexa azaldu du Polonia Etxeberria 26 zenbakiaren aldamenean dagoen plazak ez duelako eskailerarik eta ez delako irisgarria.	Aztertzen ari dira gaia.
Zerbitzuak	Errekatxuko auzokide batek jakinarazi du errefusako edukiontzien txipa hondatuta dagoela, eta jendeak kanpoan lagatzen duela zaborra.	Orain ez da txartelik behar edukiontziak zabaltzeko.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du baimendu egiten dela Polonia Etxeberria 14-16-18 zenbakien ostean aparkatzea, eta debekatuta dagoela. Eskatu du espaloia bat eraikitzeko eta aparkatzea debekatzeko.	Toki horretan baimenduta dago ibilgailu bakar bat aparkatzea kalezuloaren amaieran.
Zerbitzuak	Urkiko auzokide batek kexa azaldu du arrapala mekanikoak zarata handia egiten jarraitzen duelako.	Abisua eman zitzaion Thyssen-i eta egiaztatu zen ez zegoela ohiz kanpoko zaratarik.
Zerbitzuak	Eskatu du heldulekua duten edukiontzi marroiak jartzeko.	Mankomunitateak edukiontzien egoeraren txosten bat egin du, aztertzeko zain dagoena. Azterketa horren emaitzak dioena egingo da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek esan du uso-kabia bat dagoela Urki 1 eta 3 zenbakien gainetik dagoen autopista-zatian.	Eskatu zitzaion Mankomunitateari uso-habiak kontrolatzeko.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Urkiko auzokide batek eskatu du argi gehiago jartzeko Txaltxazelaiko parkean, batez ere, iturri ondoan dauden eskaileren inguruan.	Argiaren auditoretza bat egiten ari da, eta lortutako emaitzen arabera, beharra egonez gero soluzioak topatutako dira.
Obrak	Salatu du Ubitxa 6 zenbakirako irisgarritasuna oso txarra dela. Adierazi du barandak ustelduta daudela.	Ubitxa eta San Kristobal arteko igogailua egiten denean hobetu egingo da irisgarritasuna.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du txakur-jabeek lotu barik daramatzatela beren txakurrak, eta kakaz beteta lagatzen dutela kalea.	Halako arau-haustek antzematen direnean, salaketa jartzen da.
Udaltzaingoa	Eskatu du egoiliarrentzako aparkalekuak egiteko, auzoan dauden aparkatzeko arazoak konpontzeko.	Eibarren ez dago gun e do auzorik egoiliarrentzako aparkalekuekin. Hainbat aldiz aztertu da gaia, baina ez da bideragarria.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Auzokide batek esan du Ubitxa 5 zenbakiaren parean dauden eskaileretako baranda oso txikia dela. Gainera, adierazi du askotan ezin dela bertara iritsi, kotxe bat egoten delako bidea eragozten duena.	Barandak zabalera nahikoa du oinezkoei pasatzen lagatzeko.
Zerbitzuak	Kexa azaldu du Ubitxako zebra-bidean dagoen bisibiltate eskasagatik. Dioenez, edukiontziek oztopatu egiten dute ondo ikustea.	Mankomunitateak edukiontzien egoeraren txosten bat egin du, aztertze ko zain dagoena. Azterketa horren emaitzak dioena egingo da.
Zerbitzuak	Adierazi du Unbera igotze ko eskailerei baranda falta zaiela.	Unbera igotze ko ez dago eskailerarik.

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila

Laburpena

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila

Laburpena

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila

Laburpena



# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila

Laburpena

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila

Laburpena

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila

Laburpena

# HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 28/11/2019

Saila

Laburpena